



ESPERIENTZIA +45

Gutxienez 5 urteko lan-esperientzia duten 45 urtetik gorako pertsonak birbideratzeko eta berkokatzeko proiektua.

Proiektuaren helburuak:

- Enplegarritasuna hobetzea.
- Autoenplegura hurbiltzea..
- Lan merkatuan berrezartzea.

Nori dago zuzenduta: gutxienez 5 urteko lan esperientzia duten 45 urte edo gehiagoko Eibarko langabetuak, formakuntzarekin edo gabe.

Bete beharreko baldintzak:

- Langabezian egotea.
- 45 urte edo gehiago izatea.
- Eibarren erroldatutakoa izatea.
- Gutxienez 5 urteko lan esperientzia edukitzea.
- Gaztelaniaz, mintzatuan eta idatzian, ulermen maila egokia izatea.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Eskaerak PEGORAn aurkeztuko dira **urriaren 15etik 26arte** (biak barne). Hauek dira aurkeztu behar diren dokumentuak:

- a) *Parte hartzeko eskaera: gutxienez 5 urteko lan-esperientzia duten pertsonak birbideratzeko eta berkokatzeko proiektua (Esperientzia+45) deritzon eskaera-orria behar bezala beteta (eredua PEGORAn eta Udalaren webgunean dago eskuragarri, www.eibar.eus).*
- b) Eskatzailearen NANaren edo horren baliokidea den beste dokumenturen baten fotokopia.
- c) Lan Eskaeraren alta eta Berritze Dokumentuaren fotokopia (DARDE), eta izena emandako aldien ziurtagiria/txostena (LANBIDEk emana).
- d) Lan bizitza.
- e) Curriculum vitae eguneratua.

Hautaketa prozesua: urriaren 26tik 30era arte, Debegesan.

Programaren iraupena: 3 hilabete.

Aurreikusitako bukatzeko data: 2019ko urtarrila.

Programa gauzatuko den tokia: Debegesa.

Programaren edukiak:

1. Partaideen aukeraketa eta ongi etorria.
2. Norberaren gaitasunaren lanketa.
3. Gaitasun profesionalen lanketa.
4. Autogestioaren taldea.
5. Automarketinga.
6. Autoenplegura hurbiltzea.
7. Banakako saioak eta laguntza.
8. Jarraipena bukatu osteko talde saioak.